

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Eltziegoko biztanleei euskara ikasteko dirulaguntzak emateko 2023-2024 ikasturteko deialdia

BDNS (Identif.): 762213.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/-convocatoria/762213>).

Eltziegoko bizilagunei euskara ikasteko 2023-2024 ikasturteko dirulaguntzak emateko deialdia. Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena, dirulaguntza horiek arautzen dituen ordenantzarekin bat etorri. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai.

Xedea

Eltziegoko biztanleei euskara ikasteko dirulaguntzak emateko 2023-2024 ikasturteko deialdiaren laburpena.

Onuradunak

Eltziegoko udalerrian errolatutako pertsona fisiko adin nagusikoek edo emantzipatuek edo, bestela, haien guraso ahala edo tutoretza dutenek jaso ahal izango dituzte laguntzak, baldin eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean dirulaguntzak jasotzeko ezarritako baldintza orokorrez gainera, laguntza hauek arautzen dituen 2021eko maiatzaren 21eko ALHAOn argitaratutako udal ordenantzaren laugarren eta bosgarren artikuluetan eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

Diruz lagundu daitekeen jarduera

Matrikula, modalitate hauetako edozeinetan: urritik otsailera, otsailetik ekainera edo urritik ekainera bitartean emandako aurrez aurreko ikaskuntza ikastaroak, urrutiko edo multimedia sistemako ikaskuntza ikastaroak, ikastaro trinkoak eta barnetegietan egindako ikastaroak. Deialdi honetatik kanpo geratzen dira joan-etorrien, mantenuaren, materialaren eta ostatuaren gastuak. Ikastaroak diruz lagundu ahal izateko, homologatutako euskaltegietan egin beharko dira.

Dirulaguntzen zenbatekoa

Laguntza hauen eskatzaileek, ordenantza arautzailean eskatutako baldintzak betetzen badituzte, deialdi bakoitzean aurkeztutako ikastaroaren matrikularen ehuneko berrogeita hamarreko (ehuneko 50) dirulaguntza jasotzeko eskubidea izango dute, eta, gehienez ere, 350,00 euro jaso ahal izango dituzte. Baldin eta, eskaera kopurua eta onuradunek jaso beharreko diru kopuruak direla eta, beharrezkoa bada dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak gutxitzea aurrekontu aplikazioan esleitutako kredituaren muga orokorrera doitzeko, eskatzaile guztiei proportzionalki ezarriko zaie murrizketa hori.

Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

Laguntza hauen onuradun izateko eskaerak ikasleak aurkeztu ditu, adinduna bada edo eman-tzipatuta badago, edo haren aitak, amak, tutoreak edo legezko ordezkariak, hura adingabea baldin bada, udaletxean bertan eskuratu ahal izango den eredu ofizialaren arabera. Halaber, haren web orritik ere (www.elciego.es) deskargatu ahal izango da. Eskabideari ondoko agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

a. Ikaslearen eta, hala dagokionean, eskatzailearen guraso edo tutoreen NANaren edo AIZaren (atzeritarren identifikazio zenbakia) edo balio bereko identifikazio agiriaren kopia.

b. Erantzukizunpeko adierazpena, ezarritako ereduaren arabera egina, adierazten duena ez dagoela azaroaren 17ko 38/2003 Legeak (Dirulaguntzen Lege Orokorra) 13.2 artikuluan jasotzen dituen kasuetako batean ere.

c. Erantzukizunpeko adierazpena, ezarritako ereduaren arabera egina, zinean zehaztuko baita eskatzailea beste edozein erakunde publiko edo pribaturen onuraduna den, bai eta, hala bada-gokio, udalari eskatutako laguntzaren xede diren ikasketa berak egiteko eskatzaileak dauzkan onura, laguntza, beka nahiz edozein motatako laguntza publiko edo pribatuen zenbatekoak ere.

d. Hirugarrenen alta fitxa, udalak ezarritako eredu ofizialaren arabera egina, behar bezala beteta eta dagokion banketxeak zigilatuta, udalak interesdunari laguntzaren zenbateko ekono-mikoaren transferentzia egin ahal izan diezaion, hura ematen baldin bazaio.

e. Laguntza eskatzen duen ikaslea Eltziegoko udalerrian erroldatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

h. Udaleko diruzainak emandako ziurtagiria, egiaztatzen duena bai eskatzailea, bai familia unitateko gainerako kideak, egunean dituztela Eltziegoko Udalarekiko zerga betebeharren or-dainketak.

i. Euskara ikasteko zentroaren ziurtagiria, ikastaroaren ezaugarriak adierazten dituen:

- Ikaslearen identifikazio datuak.
- Ikastaroaren kostua; matrikulan ordaindutako zenbatekoa.
- Egindako ikastaroa: maila eta irakastorduak (astekoak eta guztizkoak).
- Ikastaroaren hasiera- eta amaiera-datak.
- Ikaslearen bertaratze maila, emandako orduen eta ikasleak parte hartu duen orduen arteko ehuneko erlazioan adierazita. Barnetegi batera joanez gero, zentroaren ziurtagirian mantenu, ostatu eta irakaskuntza gastuak banakatu behar dira.

j. Diruz lagundutako euskara ikastaroaren prezioa ordaindu izana egiaztatzen duten agiriak.

Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

Eskaerak era presentzialean aurkeztu ahal izango dira, Eltziegoko Udalaren Erregistro Oroko-rrean (Plaza Nagusia 1), 9:00etatik 14:00etara arte, baita bide elektronikoz ere, udalaren egoitza elektronikoan, edota Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako beste edozein bide erabiliz. Hilabeteko epea izango da eskaerak aurkezteko, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eltziego, 2024ko maiatzaren 15a

Alkatea
JUAN CARLOS URIBE RUEDA